

## Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



## Montes de Navarra

Juan Mari Feliu

SUA

465 orrialde

24 euro

## Nafarroako gailur guztien gida

Mendia oso ondo ezagutzera iris-tea lortu duen gizona dugu Juan Mari Feliu, Sua argitaletxearen bidez *Montes de Navarra. Guía completa de todas las cumbres. 487 cimas principales* liburua plazaratu duena. Bertan, era errazenean edo zailenean, Pirinio nafarretako gailurretara ondo iristeko beharrezkoak diren xehetasunak eskaintzeaz gainera, Artesiaga-Belate-Uhitziz-Azpirotz, Iruñerriko mendateak, Peña, Txuzito, Amunarrizketa, San Pelayo, Aralar-Alzania, Andia-Urbasa-Entzia, Lokiz eta Kodes, Erribera eta Bardeen inguruan aurki daitezkeen tontorrak eroso bisitatu ahal izateko moduak azal-

tzen dira, haietan gertatutako historiako pasadizoak, aurkituko diren naturaren zantzuak, atsedean hartzeko dauzkan gogatu eta jatetxeak azpimarratuz, besteak beste. |



## Bele Beltz pirata

Enric Larreula

IBAIZABAL

166 orrialde

9,80 euro

## Karibe osoan ospetsu egin zen zapalduen aldeko pirata kultura

Enric Larreula i Vidal idazleak sortu dituen pertsonaia guztietatik, Yon Oyanguren *Bele Beltza pirata* nobelakoa aukeratu du euskarara ekartzeko. Hamar urtetik aurrerako gazte-txoei zuzendua dago idazlana, eta 1660 urtean biolina eta antzeko zaletasunak albo batera utziz, familiaren tradizio piratari jarraitzea erabaki zuen Jacques Lagarden gaztearen abenturaz dihardu. *Bele Beltz* hartu zuen gerra-izen gisa, eta horrekin egin ei zen ospetsu Karibe osoan, ausarta, adoretua, kulturaz jantzia, tratuan adeitsua, askatasunaren zalea eta zapalduen defendatzailea zelako. Adibidez indiarrek, hainbeste oker egin zieten soldadu espainiarrek patata-tortillan jatea erabaki zutenean, *Bele Beltz*ek konbentzitu omen zituen halakorik ez egiteko. |

## Zuzenbide Pribatua Baztanen

Euskalerrriaren Adiskideen Elkar-teak plazaratzen duen *Boletín* aldizkariaren azken zenbakian lan sakon ugari agertzen dira. Besteak beste, M<sup>a</sup> Rosa Ayerbek XVI. mendean Baztanen ohikoa zen Zuzenbide Pribatua aztertzen du *Los "auriches" en el Derecho privado del Baztán navarro (s. XVI)*. *Datos para su concepto* idazlanean. Maité Lafourcadek berriaz, zuzenbideari zegokionean emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna nola galtzen joan zen azaltzen du *Le status juridique de la femme basque d'Iparralde sous l'Ancien Regime* lanean. Iago Irijoa Cortése, bere aldetik, *Oligarkien interesak korrejimenduen jardueran: Juan Fernández de la Gamak Gipuzkoan izandako arazoak* eskaintzen du. Eta José Luis Barriok, Martín Antonio de Vega y Mauleon nafar zaldunak bere emazteari 1703an emandako ezkontsaria aztertzen du. |



## Boletín

Batzuen artean

EUSKALERRIAREN  
ADISKIDEEN ELKARTEA

366 orrialde

12 euro

## Balendin Aurre Apraiz, Aurraitz

1912an, Ajangizko Mendieta-Agerre baserrian jaio zen Balendin Aurre Apraiz. Ia 94 urterekin bere azken *Karmel eguna* ospatu eta gero, 2007ko apirilaren 19an zendu zen. Olerkaria genuen, oroz gain, *Aurraitz*, nahiz eta prosan ere makina bat lan egindakoa izan. Euskara zuen bere kuttuna baita abertzaletasunaren oinarria ere. Hala dio behintzat haren bizitza eta jatorria aztertu dituen Luis Baraiazarrek *Karmel* aldizkarian. 1936an hasi zen Balendin olerkiak *Euzkadin* argitaratzen; bere hiru urteko espetxealdian ere idatzi zituen gehiago; baina 1951n hasi zen Guatemalako *Euzko Gogoa* aldizkarian haiek plazaratzen; eta gerora *Egan*, *Príncipe de Viana*, *Irrintzi*, *Goiz Argi...* eta bereziki *Karmel* eta *Olerti* aldizkarietan azalduko zituen bere idazlanak. |



## Karmel

Batzuen artean

EUSKAL HERRIKO  
KARMELDARRAK

144 orrialde

Urteko harpidetza:

12 euro



Herri maitea,  
Herri dorpea

Sebastian Gartzia  
Trujillo

EUSKALTZAINDIA / BBK  
FUNDAZIOA

914 orrialde / 18 euro

## 2006ko Mikel Zarate saria irabazitako saioa

Bitoriano Gandiagaren *Hiru gizon bakarka* poema liburuari egindako hurbilketa kritikoa-ekin irabazi zuen Sebastian Gartzia Trujilloren *Herri maitea, Herri dorpea* saioak iazko Mikel Zarate saria. Azterketa luze bezain sakon honetan ukitutako gaien artean, honako hauexek daude: Euskal kulturaren gaurko egoera; profeten ildoan barna; Orbelaungo profetaren zantzuak; Euskal Herriaren poetikotasuna; Txakolinaren ospakuntza eta Euskal Herriaren tragedia(ra)ko zirimarrak; Euskal heteronimoak; Txakolinaren ospakuntzaren ondorengo mahai inguruko *alegiak*; Euskal

Herriaren nekaldia; eta Euskal Herriaren heriotza eta hobiratzeta. Ondoren datoz Euskal teologia baterako zuinak. |

## Kroko laguna inguruko animaliak ezagutzen

Etxeko txikientzat apropos asmatutako ezusteak ditu Ibaizabal argitaletxearen *Muu, muu! Kroko eta animaliak* izeneko liburutxoak. Zarata harrigarriak entzuten dituen nekazal gune batera oporretan joana zaigu Kroko laguna oraingoan. “Ihihi!” entzuten du, hasteko. Zer izango? Eta zaldi bat. “Beee!” iristen zaio Krokori belarrietara gero. Langa gorri bat pasatzen du eta, zer aurkituko?

Ardi bat. “Kakarak!” hasten zaio norbait. Arrautza jarri berria duen oiloa da. “Muuu!” dio hurrengoak. Ukuiluan dagoen behia izaki! |

Muu, muu!

Jo Lodge

IBAIZABAL

22 orrialde / 6,80 euro



JOSÉ IGNACIO ANSORENA

## «Euskal musika herrikoia hobe ezagutzeko aukera da liburua»

Gaztelaniazko bertsioaren arrazoia?

Euskaraz, *Euskal Kantak* izenburuarekin, hiru argitaraldi ezagutu ditu liburu honek. Eta niri poz handia eman dit gaztelaniaz argitaratu ahal izatea, gure herrian zein hemendik kanpo euskal musika herrikoia hobe ezagutzeko aukera ematen duela iruditzen baitzait.

Bertsio honek ekarpen berezirik eskaintzen al du?

Euskarazko edizioak oso duinak eta zainduak izan dira. Baina bazituzten akats txiki batzuk, eta haiek saihesten ahalegindu naiz oraingo honetan. Bestalde, kantuei egiten zaizkien aipamenetan ere badira azken urteotan jasotzea izan ditudan zenbait xehetasun gehiago.

Zein da, oro har ikusirik, euskal kantu herrikoien ezagarririk nagusiena?

Gure kultura, bera baino askoz indartsuagoak diren kulturez inguratua egon da. Beraz, gure herriaren eta geure kulturaren etorkizuna mehatxaturik sentitzen zenez, apologia bururatu zitzaigun defentsa gisa. Horrela bada, tradizioz jasotako euskal kantetan, benetan nolakoak ginen aztertu beharrean, bereziki zeinen onak ginen azaltzen saiatu ginen. Juan Ignacio Iztuetaren lana oso adierazgarria da zentzu horretan. “Euskaldunen dantza mota guztiak dirade gaitzik gabeko pozkarriak, onetasun haundikoak eta txit miraritsuak” zioen. Esan nahi dut, duela urte gutxi arte –eta oraindik ere jarraitzen da hau egiten– euskal folklorea eta musika folklorikoa aztertu izan ohi direla, ez historian zehar gure herria nolakoa izan den jakiteko asmoarekin, nolakoa izateagustatuko litzaigukeen adierazteko baizik.



ALBERTO ELOSTEGI

## Ansorenaren Euskal kantak gaztelaniazko bertsioan

Ziur aski ezaguna izango da, oro har, José Ignacio Ansorena Miner *Txirri, Mirri eta*

*Txirribiton* pailazo taldean egindako lanagatik, musikaren arloko jardunarengatik baino. Hala ere, Donostiako Kontserbatorioko txistu katedraduna eta hiri bereko Txistulari Bandaren zuzendaria dugu, besteak beste. Euskal musika eta kantuei berebiziko garrantzia eman izan dien pertsona, alegia. Eta zaletasun horri eskertu behar zaio jadanik duela hainbat urte *Euskal kantak* izenburupean plazaratu zuen tradizioz jasotako euskal kanten bilduma. Jesus Lasa, Pello Zabaleta eta José Ignacio Ansorenak berak egindako kantu haien jatorriko xehetasun eta hitzez hitzezko gaztelaniazko bertsioa da Erein argitaletxearen bidez kaleratu den *Cancionero popular vasco* izeneko liburua. Euskaraz abestu ohi diren kantuak

egileari galdezka



Cancionero  
popular vasco

José Ignacio  
Ansorena

EREIN

414 orrialde

28 euro

dira guztiak, kanturen batean edo bestean hitzen bat frantsesez, latinez edo gaztelaniaz agertzen bada ere. Euskal herriarentzako nahiko ezagunak, batzuetan kantuen egileak zeharo ezezagunak izan arren. Eta gai ei dagokienez, ardoaren gainekoak, ezkontza dela-eta sortutakoak, amodioari eskainitakoak, lagunartekoak, istorioen narrazioak, dantzen oroi gisa kantatutakoak... ■